

ARANTZA ETA LARROSA

(Nire bizitzaren gomutak)

“*Auspoa*” bildumako liburu baten berri eman nahi genuke oraingoan. Tomas Gerrikagoitiaren liburua da; “Tomas Bezi”rena. Liburu gozo eta interesgarria benetan. *Garaian* Markina-Xemeingo herri-aldizkarian argitaratu zen lantxoak dakargu hona pixka bat aldaturik eta euskara batuaz jantzirik.

Neguan beheko suaren ondoan, eta udako beroan iturri ondoan, solas atsegin bat izatea bezala da.

Izan ere, Tomas Beziren bizitza dator hemen, berberak kontatua; baina era berean haren inguruko askoren bizitza eta belaundi baten histori zatiak agertzen zaizkigu, sarritan zuk eta nik hur-hurretik bizi izan ditugunak edota oroimenean bizi-bizi grabaturik ditugunak. Antonio Zabala *Auspoa* bildumaren sortzaile eta arduradunak honela diosku liburuaren hitzaurrean:

“Esan bezela, egilleak bere bizitza kontatzen digu orrialde auetan. Autobiografia degu, beraz. Baiña erri-gizon auen bizitzak beren auzotarrena eta beren gizaldi osoarena ere azaltzen digute. Ona nola esaten nuan, adibidez, Aragoiko Hilario Jarne zanak eta biok elkarlanean osatu genduan *Junto al fogaril de Atarés* liburuaren itzaurrean:

“...con la autobiografía del señor Hilario no sólo ofreceríamos la historia de un personaje concreto, sino también la de

un colectivo formado por el pueblo entero de Atarés, e incluso por la comarca. Que si el libro iba a tener un primer protagonista, en segundo término se vería otro de no menor importancia: un conjunto o comunidad de la que formaban parte todos los hombres y mujeres del pueblo, tanto vivos como difuntos´.

Ori bera du liburu onek: baserritar jator baten bizitza ez-ezik, gizaldi eta inguru artako bizilagun guztiena eskeintzen digu”.

Historia nahiko betea da, haren bizitza ere halakoxea zelako: bete-betea, aberatsa, alde askotatik aztertu litekeena. Hasiera eta amaiera izan ditut atseginen. Hasiera polit-polita da, eta alde guztietatik Tomasen izaera eta haren umore jatorra agertzen dira. Honela agertzen zaigu aurkezpenean:

Nik ez neban gaur geienak daben lako aukerarik, baña neure almen guztiak emen dira, buru zar onetatik bizitzako gomutarik urtenen guztiak aurkeztuteko alegin guztiak egiñez, buru zar au astinduz.

Gero umorez beteriko bertso txo honekin biribiltzen du aurkezpena:

*Larogei urte atian,
oso astunak lepuan;
bi makilla eskuan,
leen atxurra eta segaren lekuan.
Aixe onik eztabil buruan,
urte onekin
luma artzeko eskuan.*

Amaiera ia politagoa baino ez da. Bertsolari onak bertsoa ongi bideratu ondoren, azken punturako gorde ohi dute onena, entzulcek gogoan hartzekoa: sentimenduzko esaldi biribila, errazoi ona, ziria, umorezko esaera... Tomas Bezik ere halaxe egiten digu liburu honetan. Irribarrez sartzen gara liburuaren hasierako orrietan eta irribarre beteago eta gozoagoaz amaitzen dugu. Aurkezpenean egin duenez, amaieran ere hitz-lauz

agertzen dizkigu lehenik bere gogoetak eta gero sinaduraren aurretik bertso txo bat ezartzen du. Zatitxo batzuk aldatuko ditut hona:

*Lerro onek iru urte geruago idazten diardut. Orduan ondi-
ñok makilla batekin naikue ondo nebillan; gaur, bigaz da
txartuago. Aurrera begirata, obarik eztago. Etorri giñan eta
juan biarra dago. Miñik eztaukat eta pozik nago.*

*Azkenduaz doaz nire kontakizunok. Sei illabete daroaz bu-
ru zar onetatik atera eziñik, al dan zeatzen atera nairik.
Larogei urtegaz asi naz begira igaro dodan guztiari, eta ule
zuriok ondo astintzen alegindu naz, baña geratuko ziran
utsen batzuk tarteka...*

Eta lauko honekin amaitzen du:

*Amaitzera noia lerro traketsok,
Or dira birtute edo akatsok,
arantza eta larrosa dira baratzok,
da nire gomutako lorrotzok.*

Hasiera eta amaiera bitartean hainbat gorabehera. Arantzak ere ez gutxi, baina arrosen usain gozoarekin geratzen gara. Begirada arin bat eman diogu, hurrengoan askoz ere astitsua-
go dastatzekotan. Zinemako eszenak bezala igaro dira, behin-
go baten, haren bizitzako gorabeherak gure begien aurretik. Telebistako pantaila zoratzen denean bezala, higidura arinean
doa guztia; batzuetan, izenburuak irakurtzeko adina asti ozta-
ozta: *Eskola girua, morrontza, soldautzara arte, soldautza, ge-
rra aurreko girua, gerra sorrera, prisioneru, epaia, espetxetik
espetxera, ezkontza eta ogei urteko ondorenak, bat-bateko
alarguntza, aize barriak, familiaren gora-berak, kotxea,
"Itziarren semea", Beiena esne-kooperatiba, Ipar-Amerikan,
barriro Ameriketean, Eguneroko burruka, Israel-en, Franco il
barrian, Usterik eneban oporraldia, amaiera.*

Atal batzuen aurrean geldidunetxo bat egin dugu.

Epaia

1937ko azillak 14. Egun batzuk aurrez emon euskuen egun onen albistie, olako baten; eta ordu guztietan ames bat: zer izango ete dan.

Egun onetan ogei bat lagun batera epaitu ginduezan. Unibertsidadetik sei, biñaka alkarri eskuak lotuta, Bilboko María Muñoz-era, txaka-txaka. Alboko gela baten sartu ginduezan, eta andik lasterrera, badator bat lista bat eskuen dabela:

- Tomas Guerrikagoitia.

Neure barrureko: "Bankilluen lenengo jarten direnak, sari-rik aundiena onakuetan". Eldu nitzan bankillure, eta aurrian dana bibotie! Eta eberdiko amabiak ziran; haña begiek be itsuzeko beste izer aurrien, eta trumoi ots gogorrenetan dagon eguraldiarenak arpegiek, erdi gorri begiek.

Zutitzeko agindu eben, bakotxari sententzia emoteko. Fiskala asi zan banan-banan, nigandik asite lenengo. Nik ez nituen ulertzen berba motrollo batzuen ondoren:

-Merecedor de cadena perpetua o la última pena.

Olan, geiago edo gitxiago, beste guztiena.

Atzera, idiak legez biñaka buztartu eta leengo lekura. Nire buztarri-laguna mungiatarra zan. Au Ertzañako motorista izana zan.

(...) Ondo iruntsiak geunkezan onako kasu askotan jazo bari ziranak; euretatik bat ezaguna: Amorotoko alkatie izana, epaian cadena perpetua eskatuta; eta, jakina, gizona eta etxe-kuok trankil, salbau zalakoan. Andik egun gitxire, beste abixu barik, illuntze baten, kapillarako deia; eta onek ez eban beste ondorenik: goixian Derioko paretera.

(...) Eta beste jazoera bat, eta ezaguna au be: Errota etxiaren izena. Oni, fiskalak "última pena" eskatu eutsan, eta pozez kantari bere lagunakana: penarik txikiena emon deutsela eta bixaramonian etxera pentsetan. Baña lagunak begiak zabal-

du eragin eutsezenian, beste txori batek abestuko eban bere barruan, moral aundikoa zala ondo entzuna neban baña... Alan biarrez, suberte aundia izan eban, zigor ori cadena perpetuara jatxi eutsenian. Zorionak!

Onek Larrinagan jazotakuak dira, gure aita an egon zan egunetan. Onakuak eta txarraguak entzutia eguneroko ogia zan.

Beste albiste bildurgarri eta negargarri bat be eldu zan gure belarrietara: gu epaitu eta egun gitxira, Santoñan, Duesoko Penalian, ez epai eta ez arrazoi, biña partidu politiko bakotxetik, eta beste biña sindikal bakotxetik, atera euren zeldetatik eta kanpo santura, amalau batera eta danak euskaldunak. Ortik kontuak atera eziñik eztago gure buruan zenbat korapilko sortuko ziran egun larri aretan. Txanpona aidera botata egoan, lurrian laster zan. Cara ala cruz izango ete zan?

(...)

Beste guztieri eutsi neutsen nire teman, baña emaztegaiak, ainbat erregu egiña zanez, eskatu eustanari erantzuna emon eta bere guraria betetia erabagi neban, eta eginda eukitia gixienez, olerki modura egiña guztia:

*Neure Joxepa maitia:
lerro bi zuzendu nai
eta pullsua dardarrez.
Urte askotan ibilita
maitemindu giñan alkarrez.
Urtea pasa da bat egiteko giñala biok,
pozez eta irribarrez.
Ekaitz madarikatu bat zala medio
atzeratua zoritxarrez.
Gure txoko maite onen areriuak
jagi ziran guzur ta indarrez.
Euskadi guztia ipiñi dabe
bildurrez eta negarrez.
Zapalketa onen aurka jagi nintzan*

*neban almen da indarrez.
Au dala medio epaitu nabe
eriotza zigorrez.
Onek banatuten gaitu biok
barru-barruko miñez eta negarrez.
Baña oroituko zaitut
arimaren indarrez.
Ez bildurrik izan
beste bat maitatzeko nire orde.
Baña ez naizu aztu
zure otoitzez.
Beso artian laztanduz agurtzen zaitut,
Joxepa, azken arnas au emonez.*

*Guzti au eginda poltsikuan sartuta nenbillen bitartian, ha-
ten ikusi neban, baña eneutsan emon, leen larri egoena larria-
go ipiñi baño ez ebalá egingo eta.*

*epaiaren ondoren amar bat egunera, eberdi aldera, deitu
ninduen bulegora eta irakurri eusten epaiaren sententzia: "ca-
dena perpetua". Izenpetu neban amar milloiko txartela neure-
tzako izan halitz legez, nai ta gose ta miseri askok itxaron
atzetik. Andik lasterrera andrageia ikusi nebanian, beste arpe-
gi bat zan beria be, eta orduan emon neutsan agur ori eta pol-
tsara sartu eban.*

Nik lehenago ere entzuna nuen eta liburuan ere bazterren
batean badator diktadorearen morroiek, polizia eta abarrek
Tomas Beziri buruz cuken txostena. Esaldi honetan laburturik
zegoen: "Elemento peligrosísimo"...

Une lazgarrietan ere umore onari eusten dakien honek badi-
tu kontakizun gozoagoak, gertatzen direnean burukomin han-
diak eman arren, gerora barre gozatsu eragiten dutenak; horre-
lakoak dira, esaterako, eskuetan hartu berritan motor eta auto-
mobilarekin gertaturikoak. Ikus ditzagun biotariko zatitxo
batzuk:

Gañera, iru edo lau illabele aurretik, batetik asko biar genduelako, eta bestetik modak asko aldatuaz joiazalako gazte eta zartxuaren artian be, batez be bizikleta zarrak baztertu eta Vespa edo Lambreta sartu, eta guk be gitxiago izan gura ez. Neu be aspertuta negoan traste zar aregaz; eta, gañera, asko ibili biar nebalako, erosi neban Lambreta barria. Goiz baten juan Markiñara eta ordainduta itxi neban, arratsaldian semia eske juateko. Pozik etxian guztiak, eta neu ez gitxien.

(...) eta etorri zanian, begirada bat eta "Au, onan; bestia, alan", naikue maixu be banitzala pentsaurik gañera, arrankau neban. Benetako maixue banitz lako urtera normala egin neban; amar-ogei metrora bitartera, bigarreneira aldatzen asi nintzan, eta okerrera: lenenguaren aldera. Txoriak burutik iges, eta naikue bizkor azeleraute neukala, soltau dot enbragia, eta bo-landerie baño bizkorrago giñan motorra sasitzara eta ni beste aldeko kuneta zulora! Eskerrak sasitzari, motorra marrauz bai, baña aberi gogorrik barik, eta neu be bardin, minik barik.

Semiaren asarriek! Akabo ba! Baña, alan da guzti, sustotxue emon eustan arren, neure buruari au esan neutsan: "Tomas, zuk ortxe ibili biar dozu". Eta sasitzatik atara eta kilometro batzuk egin nituan etxera orduko. (...)

Jazoera orretatik berrogetazortzi ordura, Arrateko Radiotik diño:

- Tomas Bezik Lambreta barria ekarri dau, eta gañera barria. Igonda ogei metrora, motorra alde batera eta Tomas beste aldera egin dau.

Orrexek berbok oso-oso esan zituan eta lau probintziak jakin eben. Zorionak, danak ondo juan ziran eta. Andik aurrera, amaika ibili egin eban, batian batagaz, bestian bestiagaz, eta suberte bat izan genduan beragaz: iñok ez genduela minik artu. Eta bizikleta zarra, laixe zarrak legez, baztarrian.

Automobila eskuratu zuenean, oraindik handiagoak ikusi behar izan zituen. Burgosera osteraren bat, Errioxara bi edo hi-

ru egina zen. Bigarreanean edo egundokoak izan zituen... baina luzetxoa da. Bezi baserritik soloan behera ia beheko kamino-raino erori zitzaionekoa kontatzen digu, beste gertaera askoren artean. Horixe ekarriko dugu hona:

Negua zan; illunez urten biar zan. Eta alan egiteko, kotxia beti atzeka egoten zan temajanan; frenue eta kanbixue kendu ezkerro, martxan ipiñi barik aurrera jarten zan beerako biderra. Emen be, geienetan martxan ipini barik jarraitzen neban, baña orduan apur bat atzerago eta arrankau barik juateko konturik ez.

Otz be baegoan, da, emon kontatuari eta arrankau ez, aibat bidar emonda. Ezkerreko ankia atarata emon neutsan sakada txiki bategaz soltau zan, eta nik egin nituen almen guztiekin, ezin eldu ankia frenora. Eta neu, erdia barruen eta beste erdia kanpuen, ogei bat metrotara, bota neban neure burua kanpora; eta andik eta eun la ogei metro edo geiago, soloz beeran jua, da bide zabalerako amar metro faltan geratu zan, argiak be biztuta zituala. (...)

Goixian, barritan, eneban sentitzen ezer egin nebanik; baña illuntzera agertu ziran or-emengo miñak, ez bildurtzekorik. Iru egunera, ezer be ez. Kotxia ikustiak min geiago emoten eustan. Barriz konpondu ala barria ekarri, dudak. Konpontzia erabagi, eta ogetamaika milla pezeta kostatzen, eta alan da guztiz be, direziñoian zer edo abar akats geratu.

Hauek liburuan datozen zatitxo batzuk baino ez dira. Hango orrialdeetan sartu ahala, ehundaka eta era guztitakoak aurkituko ditu irakurleak. Orain esatera noana ez dakit liburuan datorren, baina neu naiz horren lekuko: Markinako Osteko kalean zen; larunbat goiza zela uste dut; ordurako ibilpidea nahiko narrasturik zuen; ez dakit makila baten edo biren laguntzaz ibiltzen zen, eta galdetu nion: *Zelan gabilz, ba, Tomas?*

Eta Tomasek erantzun: *Ibili txarto, baina bizi ondo...!*

Lehendik ere ezagutzen genuen pixka bat Tomas Bezi, baina liburu honen laguntzaz hobeto ikusi dugu haren gizatasuna, haren zorion-zorigaitzak, umorea, bizimoduari begiratzeko era... Uste dugu, liburu hau kristau euskaldun jator baten lekukotasuna dela. Tomas Bezi Bolibarko baserritar bat genuen, baina baserritar jantzia, burutsua, aurrerakoia, abertzalea, gizarte gaietan buru eta bihotz sarturik zena. Une batzuetan, Joan Antonio Mogelen Peru Abarka etortzen zaigu gogora. Ia haurtzarotik ezagutu zuen bizitzaren alderdi bikoitza: arantzak eta larrosak: eskolako giroa, morrontza, Comillasko Jesulagunen artean gaztelania ikastearen truke lan gogorra. Eskarmentu handiko gizona genduan herriaren aldeko borrokan. Aberriagatik asko ikusi beharra izan zuen. Atxilotua izan zen eta kartzelarik kartzela erabilia. Diktadurapeko azken urteetan etxean norbait ezkutaturik eduki zuelako, guardia zibilez eta poliziaz baserria inguraturik ikusi beharra izan zuen. *Beiena* esne-kooperatiban eta *MIBA* baserritar kooperatiban parte-hartze garrantzitsua izan zuen; azken honetan lehendakari izan zen hainbat urtetan. Markina-Xemeingo udalean zinegotzi ere izan genuen demokrazia garaiko lehenengo urteetan. Gehiago eta gehiago ikasi nahia zen haren ezaugarrietariko bat; horregatik, Elizan nahiz gizartean sortzen ziren haize berriek ez zuten batere kikiltzen; bestera, bizigarri eta erronka antzera izan ohi ziren haren izaera aurrerakoiarentzat. Ume guztiok negarrez sortu ohi gara mundu honetara; hasierako errito ezinbesteko horren ondoren, laster loratuko zitzaion irribarrea gure Tomasi; eta irribarrez joango zen mundu honetatik ere. Liburu hau bera bizi zela eskuetan hartzeko gogoia erakutsi zuen, baina ez zuen lortu. Antonio Zabala *Auspoako* zuzendariak pena hori agertzen du sarrerako hitzetan. Guk, mundu honetarako berandu izan arren, fededunen arteko komunikazio mugagabeen lerro xume hauek pozik onartuko dituelakotan, AGUR, TOMAS BEZI.

Luis Baraiazarra